

---

## ARAZOAK

---

# JAZORIKOAK GOGORATZEN

Amar bat urte dala edo, ume euskaldun talde aundi batekin, Gernika'ko Batzar Etxea ikustera joan giñan. Umeok, «Kili-Kili»'koak ziran ain zuzen be eta eskursiñoa, euskera ikastaroaren sari lez eratua.

Batzar-Etxera sartzeko erabilli genduan izkuntza, era bitakoa izan zan: guk, Batzar Etxera sartu aurretik jakin bear genduazn zertzeladak, bertan egoan gizonari, euskeraz egin geuntsozan.

Eta berak guri, beti erderaz erantzun.

Guk, umeai egin geuntsezan oarrak bere, euskeraz egiñak izan ziran: ezeri ez ikutzeko... ezer ez loitzeko... lurrera ezer ez botatzeko etab... Batzar Etxeko arek ostera, erderaz esan eutsezan gauza berok.

\* \* \*

Sartu giñan sartu ba... Batzar-aretora, ume danak eltzen ziran bitartean, arduradunetarik zeinnek, umeai dagokienez, itz-lauz, eta labur angó azalpenak emongo ebazan ari giñan... Alperrik! Batbateko gauzea izan zan: Batzar Etxeko jaun arek (ala jabeak?), berak buruz ekian eten bako, itz-jariozko iturria erderaz jaurti eban, lenengotik azkeneraño.. .

\* \* \*

Gu, itz barik geratu giñan... Arri biurtuta... Lotsatuta... Minduta, gure umeen artean, Bizkai'ko Jaunen erdian...

Bizkai'ko Jaunok, gu inguraturik, geuri goitik beera begiraturik, Gaztela'ko errege-engandik asita, guztiok zirauskuen: «Gu, Bizkai'ko Jaunak gara! Zuek ostera, otseiñak, morroiak! Obeto esanda, morroi-maillara be ez zaree eltzen! Jopuak zaree!».

Olantxe izan zan ba, guk gure Batzar Etxera egin genduan ikertaldia. Buru-makur urten giñan gure umeen atzetik...

MAITENA'k

# BOROBIL ANTZERA

*Zelan dau gaisua?*

*—Il agiñian...*

*Sartu ta jesarri. Or dagoz bestiak.  
Jesarri eurekaz.*

*Luze-luze eginda, begiak itxita  
or dago oyan.*

*Zudurra zorrotzen,  
erre-autsa margua, bere arpegian.  
Neure adizkidia, neure lagun ona  
orain ba zuan...*

\* \*

*Umia nintzala, borobil gorria,  
putz-ontzi barria, igesi yatan.  
Ba-dua zeruan. Gero ta txikiagua  
deritxat! Ai nire tamala!  
Ezin arrapeu, ezin bere ekarri  
eskuetara.  
Baña boronbilla, ez,  
ez zan ituna. Arraña itxasuan  
baizen azke, pozik igoten gora.*

\* \* \*

*Gureztat ituna. Baña azkatu ezkeró  
zoruna beintzat.  
Buruen barruban, odola-taupakak  
joalen eresia, bigurtu dira.  
Gero ta ariñago, pisurik gabe,  
bere arimia, gora altzaten da.  
Barkamen jantziaz, Jauna'k jantzi dau.  
Jauregiko atiak,  
Gera pasetako zabaldu dira.  
Bere sendikuak, ateraño, agurtzen  
or alkartuta.  
Eguna ezta illuntzen!*

*Alaya ezta amaitzen!*

\* \* \*

*Neure lagun ona, gomuta nigaz.*

UTARSUS